

**Bilbo'n, Euskaltzaindiaren bein-beineko etxean,
1923'ko Garagarila'ren 26'an.**

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren bein-beineko etxean, euskaltzain abek bildu dira: Azkue maipuru, Landeñe-
txe, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, A. Intza ta
Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Otoizez asi-ta, A. Intzari eman zion maipuruak
itz egiteko eskubidea ta euskaltzain Intzak irakurri
zuen berak egindako lan bat Urgel aldeko itz zañak
euskerazkoakin zer ikusi duten adierazirik. Ortarako
lan-argibide bezela ondo etofri zaio noski Meyer-Lübke
jaunak *Bulleti de Dialectologia Catalana*'n argitaratu
duen idazkia.

2. Azkue jaunak beste lan eder bat azaldu zion
euskaltzaindiari: euskeraren aldakuntzak antzinatek
onerarte gai arturik. Onetzaz gañera, bere *Mortolo-
gía*, bigañen zatiari dagokiona, irakurri zuen eta gogoz
entzun zioten beste euskaltzañak.

3. Eguskitza jaunak, *Morfología* gai artuta, gain
-gañeko oarketak ekañi ditu. Batez ere *deunge* ta
dongea euskal-itzak ondo aztertu zituen ta auxe bide,
naiko jardun izan da euskaltzain artean.

Aita Intzak aitortzen du Iruña'ko Seminarioko eus-
kal-azterketetan izan dala Euskaltzaindiaren agindua
ondo beterik ta aitortu bear du: osoro poztu ta biotza
atsegin-atsegin eginda datoñela Euskaltzaindiari ira-
gartzera lkastetxe artako azterketa oiek bikain-bika-
ñak izan dirala. Auxe da ere bere lagun euskaltzain

Kanpion jaunaren iritzia. Au batzaraldira ezin etorri dalako, onen izenean ere egiten du aitoritza auxe. Euskaltzaindiak gogoz entzun ditu Aita Intzaren itzak ta Ikastetxeko zuzendari jaunari zorionik beroenak bidaliko dizkio.

Beste gai batzuek urengorako laga dira ta otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren bein-beineko etxean, 1923'ko Garagañila'ren 27'an.

Aipatu diran lengo batzaraldiko euskaltzain berak daude Azkue maipuru dutelarik.

1. Ezkutitzak irakurri dira ta lan auxe ta beste batzuek egin da, Donestebe'ko euskalegunen egitama, orainxe bertan, geroko utzi gabe, egitea erabaki da. Asko itzegin ondoren, alaxe eskatzen baidu arlo onek, auxe erabaki da Donestebe'n egitea:

Agoñaren 7'an. a) Goizeko bederatzitan Batzar Nagusia, b) Euskaltzaindiko Zadorlariak itzaldi batez agertuko du Euskaltzaindiaren lana Durango'ko batzar nagusitik onera, c) Abestiak, d) Eguskitza jaunaren itzaldia Elkanoko Lizañagaz, e) Goienetxe jaunak Azpillkuetaz. *Añatsalderako:* a) Abestiak, b) Irigarai jaunaren itzaldia Lakoizketaz, c) Intzagarai-ren olerkia Oñeagaz, d) Pilota jokaketa. *Agoñaren 8'an.* a) Aita Azpiazu'ren itzaldia, Leizako orain eun urteko euskeraz, b) Iruña'ko euskal-ikastoletako emakume gazte baten itzalditxoa, c) Ume arteko sari banaketa. *Añatsaldean:* a) Aita Mendiburuz kaputxino dan Aita Andres Lizartza'ren itzaldia, b) Katalin Eleizegi eus-